

## BERGARAKO UDALEKO AZOKAREN ERREGELAMENDU BERRIA EGITEA. AURRETIAZKO KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

*“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:*

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.*”

Begarako Udalaren asmoa zen udalak indarrean duen Azokako Erregelamenduan hainbat artikulua aldatzea.

Aldaketa horren helburua hauexek litzateke: azokarako gordetako gune edo espazioan egin nahi diren aldaketek emango dituzten ustiakarako aukerak bertan jasotzea eta bateraezinak bihurtu diren artikulua edo edukia bertatik kentzea.

Hau da:

- Azokako 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14 postu itxiak desagertzen dira.
- Postu horiek okupatzen duten eremuan, elikagaien banaketa –eta horrekin zerikusia duten zerbitzu osagarriak izan daitezkeenekin osatua– edo azokaren indargunea helburu izango duen espazioa eraiki eta arautzea/ antolatzea.
- Bertan salmentarako edo zerbitzu osagarrien aukera ere sartzea
- Azokan saltzeko lehentasun-irizpideak argitzea.

Halaber, ikusita artikulua askotan zaharkituta gelditu dela erregelamendua, bertatik abiatuta berri bat egitea eta onartzea jarri da helburu gisa.

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du Begarako Udaleko Azokaren Erregelamenduaren aurretiko kontsulta publikoa egitea (erregelamendua onartu baino lehen).

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteek parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2022ko abuztuaren 5era arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: [idazkaritza@bergara.eus](mailto:idazkaritza@bergara.eus)
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1).

## **ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

Elikatzeko oinarritzko eskubidea bermatzeko hornikuntza-zentro publikoa da azoka. Herritarrei kalitatezko elikadura prezio onean bermatzea du helburu orokorra.

Bestalde, beti izan du helburuen artean bertako jatorria duten elikagaien hornitzaileentzat saltzeko gunea izatea.

Helburu horietaz gain, asmoa da zerbitzu osagarriak ere ematea, elikadurarekin zerikusia dutenak eta egungo bizimoduari egokitzen direnak: prestatutako janariak, dastatzeko aukera...

Aurretik esandakoak Azokako Erregelamendua egokitzea eskatzen du.

## **ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HELBURUAK**

Erregelamendua aldatzea eta horretarako Erregelamendu berri bat osatzea. Oro har, Begarako Udalak azokaren bidez bete nahi dituen elikadura-helburuak handitzeak, eguneratzeak eta funtzionamendua egokitzeak egun duen egituran eragingo dituzten aldaketetara egokitzea egungo edukia.

## **EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ ERREGULATZAILEAK**

Udalak onartuta duen erregelamendua aldatzea ezinbestekoa da egingo diren aldaketak bertan txertatzeko eta elikadura-helburuak bermatu daitezen erabileraren inguruko arauak egokitzeko.

Aldi berean, eta helburu berarekin, erregelamendua eguneratuta berri bat osatzea.

Indarrean dagoen erregelamenduak 6. artikuluan hau jasotzen du:

*“Udal Plenoaren eskumenekoak dira:*

- a) Erregelamendu hau onartu, aldatu edo desematea.*
- b) Azoka aldatu edo kentzea edo beste bat eraikitzea.”*

Udalbatzari dagokio ordenantza edo erregelamenduak onartzea eta eskuordetu ezina da.

Argitaratze data: 2022/07/18

## ELABORACIÓN DE UN NUEVO REGLAMENTO DEL MERCADO DEL AYUNTAMIENTO DE BERGARA.

### CONSULTA PREVIA

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas— ha implicado novedades a la hora de redactar leyes y reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados.

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

*“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

- a) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.”*

La intención del Ayuntamiento de Bergara era modificar algunos artículos del Reglamento del Mercado que el ayuntamiento tiene en vigor.

El objetivo de dicha modificación sería recoger en la misma las posibilidades de explotación que los cambios a realizar ofrecerían en el espacio reservado para el mercado, eliminando así los artículos o contenidos que no sean compatibles con ello.

Es decir:

- En el mercado desaparecen los puestos cerrados 8, 9, 10, 11, 12, 13 y 14.
- En el espacio ocupado por dichos puestos, construir, regular y ordenar un espacio destinado a distribución de alimentos —con posibles servicios complementarios relacionados— o punto fuerte y central del mercado.
- Incluir también la posibilidad de realizar en dicho espacio ventas o servicios complementarios.
- Aclarar los criterios de prioridad para la venta en el mercado.

Así mismo, en vista de que el reglamento ha quedado obsoleto en muchos de sus artículos, se ha planteado como objetivo elaborar y aprobar un nuevo reglamento partiendo del anterior.

Con el objetivo de cumplir el procedimiento dispuesto en la Ley 39/2015, el ayuntamiento ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa a su aprobación sobre el Reglamento del Mercado del Ayuntamiento de Bergara.

Por tanto, las personas, organismos o asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones hasta el **5 de agosto de 2022**, por cualquiera de estas dos vías:

- Mediante correo electrónico enviado al buzón [idezkaritza@bergara.eus](mailto:idezkaritza@bergara.eus)



- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martin Agirre 1).

## **NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA**

El mercado es un centro público de suministro para garantizar el derecho básico a la alimentación. Su objetivo general es garantizar para la ciudadanía una alimentación de calidad a buen precio.

Por otro lado, siempre ha tenido entre sus objetivos ser un punto de venta para suministradores/as de productos de origen local.

Además de dichos objetivos, también se contempla la prestación de servicios complementarios relacionados con la alimentación y acordes con el modo de vida actual: alimentos preparados, degustaciones...

Todo lo anterior exige realizar una adecuación del Reglamento del Mercado.

## **OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA**

Modificar el reglamento y, para ello, elaborar uno nuevo. En general, adaptar el contenido actual a las modificaciones que en su actual estructura va a suponer la ampliación de los objetivos de alimentación a cubrir por el Ayuntamiento de Bergara mediante el mercado, así como su actualización y adecuación de su funcionamiento.

## **OTRAS OPCIONES REGULATORIAS O NO REGULATORIAS QUE PUEDAN EXISTIR**

La modificación del reglamento que tiene aprobado el ayuntamiento es imprescindible para incluir en el mismo las modificaciones que se van a implementar y adecuar las normas de uso que garanticen los objetivos alimentarios.

Al mismo tiempo, y con el mismo objetivo, actualizar el reglamento elaborando uno nuevo.

El reglamento vigente en su artículo 6 recoge lo siguiente:

*“Es competencia de la Corporación en Pleno:*

- a) La aprobación, modificación o derogación de este reglamento.*
- b) El cambio, la supresión del mercado o la construcción de uno nuevo.”*

Corresponde al Pleno de la Corporación Municipal la aprobación de ordenanzas o reglamentos, siendo además indelegable.

Fecha de publicación: 18/07/2022